2017-10-27 OSTIRALA / 1397. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

# txintxarri



## Motorren barrunbaz gozatzeko eguna

Loquillo Riders motorzaleen urteurrenak Okendo plaza ekintzez beteko du azaroaren 4an / 2

TXINTXARRI

## Parte hartzea, arautua

Udalaren parte hartze tresnak, eta herritar zein elkarteen eskubideak zehaztu dituzte / 3

Lasarte-Oria Bai! gehigarria

**ORDU ALDAKETA**

Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.




Ges ASEGURUAK

Lasarte-Oria Bai! krosarekin bat

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Aurrezkiak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!




Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943 36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria



Loquillo Riders taldeko kideek asteartean egin zuten prentsaurrekoa, azaroaren 4ko egitarauaren berri emateko. TXINTXARRI

# Motorzaleen elkargune izango da Okendo plaza

Loquillo Riders motorzaleen elkarteak lehenengo urteurrena ospatuko du azaroaren 4an, eta egitarau zabala antolatu du egun horretarako, Lasarte-Orian. Goizetik gauera bitarte, ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera eskainiko dute

**Maddi Noriega**

Motorrak hartu, ibilbidea egin, bisita sozio-kulturalak antolatu eta bazkari eder batekin amaitu. Hori izaten da hileroko Loquillo Riders motorzale taldearen plana, gutxi gora behera.

2015. urtean hasi ziren motorzaleak elkartzen. Sare sozialen bidez komunikatu, eta leku ezberdinetara irteerak egin zituzten motorrak hartuta.

Horietako bat Gipuzkoan egin zuten, herrialdean egiten zuten lehena izan zen, eta egun osoko egitaraua Lasarte-Orian amaitu zen; Kale Nagusiko Mendi Rock tabernan, zehazki.

Aitor Sanchez motorzale taldeko kideak azaldu moduan, bertan bilduta zeudela, taldeari izen bat ematea erabaki zuten, eta tabernaren izen bera emanaz, Loquillo Espiritu izena jarri zioten.

Orain urtebete, berriz, taldea erregistratzea pentsatu zuten, baina ordura arteko taldeko zenbait kideen bajak medio, izena aldatzea erabaki zuten: Loquillo Riders. Egun, 82 bazkidek osatzen dute taldea.

**Urteurren ospakizuna**

Azaroaren 4an antolatu du taldeak urteurrena, eta hori behar bezala ospatu asmoz, egun osoko egitarau zabala antolatu dute. Horren berri eman zuten astearte iluntzean.

Ekintza gehienak Okendo plazan egingo direla jakinarazi dute, nahiz eta izen ematea (goizean), Sasoeta auzoko 2KN kafetegian egin beharko duten partehartzaileek. "Ospakizunaren bitartez herritarrei Loquillo Riders ezagutaraztea da gure helburua", adierazi zuen Sanchezek.

Agerraldian esan zuten moduan, edonork du datorren larunbateko festan parte hartzea. Edozein motor izan eta parte hartzeko gogoa dutenei deia luzatu zieten gonbidta: "Moto eta motorzale guztiei irekita dagoen ekitaldia izango da, ez dago bertan parte hartzeko beharrezko adinik, eta taldetik deia luzatzen diegu gurekin parte hartzera animatu daitezen", azaldu zuten antzolatzaileek.

**Ibilbide solidarioak**

Hilabeteroko hitzorduez gain, *Ibilbide solidarioak* ere egiten dituztela jakinarazi zuten. Orain arte bi egin dituzte, eta lortutako dirua behar dutenei eman: zaintza bereziak behar dituzten bi umeen familiek jaso dute bildutakoa.

## Egitaraua

**Larunbata 4**

- **09:30** *Izen ematea, 2KN kafetegian*
- **11:00** *Irteera*
- **13:30** *Poteoa tabernetan*
- **14:30** *Bazkaria Okendo plazan*
- **16:00** *Puzgarriak*
- **18:00** *Oparien zozketa*
- **18:30** *Anairen kontzertua*
- **20:00** *Aisialdia*
- **21:00** *Afaria (ogitarteko beroak)*
- **22:30** *Roadhouse taldearen kontzertua*
- **00:30** *Musika*
- **01:00** *Festa, gorputzak eutsi arte*



TXINTXARRI

## Halloween festa, Caddie plazan

Halloween gaua antolatu dute urriaren 31rako, astearterako, Caddie plazan. Atsobakar auzoko dendariek antolatu dute ekitaldia, Aterpea herriko merkatarien elkarteak babestuta. Stratford Ingles Akademiak, Patricia's Scrap tailerrak, Malatu Okindegiak, Cannes zakurren ileapaindegiak eta Buenetxea kafetegiak. 17:00etatik aurrera, photocall, musika, jokuak eta *Trick or treat* egingo dute. Aterpeak dei egin Lasarte-Oriako herritarrei Halloween eguneko festan parte hartzera. "Dendak dituen herri bat bizirik dagoen herria da", oroitarazi du merkatarien elkarteak.

## 'Argizaiola' berria, Mendiluzeren oroimenez

Bihar, eguerdian, Danok Kideko lehendakari eta kooperante izandako Juan Jose Mendiluzeren oroimenean *Argizaiola* eskultura berria inauguratuko da, Atsobakar parkean.

Gotzon Huegunen lana dugu, berriro ere, eskultura hau. Oraingoan, harria eta marmol beltza erabili ditu eskultura osatzeko. Euskal eskultura berriaren estetika jarraituz landu du, marra garbiak erabili ditu eta soila da. "Beste dimentsiorako igarobidea irudikatzen duen hutsunea du". Aurrekoaren antzera, boluntarioen lanari eskainia dago.

Lehen *Argizaiola* hainbat herritarren ekimenez ezarri zen parkean. 2013an eraberritu eta 2014ko martxoan desagertu zen.

## Odol emaileei eskertza ekitaldia, Urnietan

Gipuzkoako Odol emaileen Oria Beheko ordezkaritzek urteroko bilkura egingo dute, igande honetan, Urnietako Oianume sagardotegian.

Bertan, odol emaileen eskuzabaltasuna eskertu eta 25, 40, 50 eta 75 odol-ateratze bete dituzten odol emaileei urrezko edo zilarrezko oroigarriak eta emaile bikaina sariak banatuko zaizkie.

Ekitaldiaren ostean, guztiek sagardotegiak prestatutako bazkaria dastatuko dute.

Bestalde, astelehenean, 17:30etik 20:00etara, hilabeteroko odol ateratzea egingo da Osasun Zentroan. Elkarteko kideek herritarrak gonbidatzen dituzte odola ematera.

# Parte hartze araudiaren nondik norakoak azalduz

Lasarte-Oriako herritarrek, besteak beste, udalaren informazio eskatu, ekimenak edo udal gaiei buruzko galdeketak sustatu ahalko dituzte Parte hartze Araudiari esker. Behin behinekoz onartu zen udalbatzarrean; aurki alegazioak jartzeko aukera izango da

**Nerea Eizagirre**

Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek eta Lourdes Acevedo Parte hartze saileko arduradunak berriki onartu den araudiaren puntu garrantzitsuenak zerrendatu dituzte aste honetan egindako agerraldian.

Jesus Zaballosek azpimarratu legez, azken urteetan bi araudi garrantzitsu landu eta onartu dira; bata Udalaren Araudi Organikoa eta bestea, Parte hartze Araudia.

Oso pozik agertu da alkatea, gehiengoak onarturako araudia delako. Udalbatzarrean PSE-EEk, EAJk eta Podemosek alde bozkatu zuten, eta PP eta EH Bildu abstenitu ziren.

Acevedoren hitzetan, “tresna bat" da araudia. "Denbora beharko da guztia martxan jarri eta herritarrek barneratu dezaten. Guk parte hartze prozesuak martxan jarri ahal ditzakegu, baina jendeak ere erantzun behar du".



Udal ordezkariek Parte-hartze Araudiko puntu garrantzitsuenak azaldu dituzte. TXINTXARRI

**Araudia**

Araudian Lasarte-Oriako Udalak dituen parte hartzeko tresna eta bide guztiak arautzen ditu. Esate baterako, sortuko den Herritarren Informazio Zerbitzua. "Honek izapide guztietarako lehiatila bakarra egotea ekarriko du," aipatu du alkateak.

Hau martxan jartzeko, alkatearen azalpenen arabera, bi barne promozio egingo dira; vbata zerbitzua kudeatzeko eta bestea udalaren web guneko atala kudeatzeko.

**Ekimen eta galdeketak**

Era berean, herritarrek eta elkarteek dituzten eskubideak eta horien prozedurak zehazten dira, baita udalak erantzuna emateko bete behar dituen datak ere. Informazio eskubidea, iradokizun eta kexak egitea, alkatearen audientziak, herritarrek aurkeztutako ekimenak edo galdeketak egiteko eskaera dira horietako batzuk. Adibide modura, herritarrek eskatuz gero, aurrekontuen eta proiektuen egoeraren jarraipena egin ahalko dute.

Herritarren ekimen eta galdeketen kasuan, eskaera egin nahi duten pertsonek hautesle-erroldaren %10aren, hau da, 1.500 bat pertsonaren sinadurak aurkeztu beharko dituzte. Udalbatzarrera eramango da gaia, eta onartuz gero, aurrera eraman beharko ditu udalak. Galdeketei dagokienez, alkateak azaldu modura, udalaren eskumeneko gaietan egin ahalko dira, baina ez dira lotesleak izango. "Onartuz gero, galdeketak bere araudi propioa izango du. Araudi hau eta galdeketaren prozesua udalak landuko du".

Udalak martxan dituen parte hartze prozesuen agenda bat ere izango du. Honetan, prozesuen nondik norakoak, metodologia, eremua eta beste azalduko dira. Eta parte hartzea sustatzeko kanpainak egin beharko ditu.

Alkateak azpimarratu duenez, aurrekontuen parte hartze prozesua ere arautu da. “Urtero egiteko konpromisoa hartu da horrela. Ezin izan dugu asko zehaztu. Izan ere, legeak ez baitu ekonomiarekin zer ikusia duten gaietan esku hartzerik ahalbideratzen, zergak edo tasen kasua da hau”.

Horrez gain, batzorde edo tresna berriak sortuko direla jakitera eman du alkateak.

Udalerriaren egoeraren eztabaida egingo da urtean behin. Ez ohiko batzarrean, alkateak eta alderdi politikoek herriaren egoera orokorrari buruz hitz egingo dute. Herritarrek ere haien ekarpenak egiteko tartea izango dute.

Auzoko erakundeen batzorde aholku emailea sortuko da. Lasarte-Oriako auzo elkarteko kideek parte hartze araudia era egokian aurrera ematen dela ziurtatuko dute. “Helburua da udalak parte hartze atalean aurrera eramaten dituen prozedura eta herritarrei emandako erantzunen kontrola egitea”, esan du alkateak.

Azkenik, hiritarren bulego mugikorra egongo da. Urtean behin alkatea edo zinegotziak auzoetara joango dira herritarren iradokizunak jaso edo auzoari dagokion informazioa eskaintzera. Alkatetzak erabakita edo udalbatzarraren gehiengoak onartuta egingo dira bisita horiek. Udalbatzarrak eskatuz gero, 30 egun izango ditu alkateak dagokion auzora joateko.

**Alegazioak**

Parte hartze Araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Lasarte-Oriako Udalaren web gunean ere izango da herritarren esku. Izan ere, 30 egun egongo dira alegazioak egiteko. Helegiterik egon ezean, behin betiko onartuko da. Egotekotan, hauek Parte Hartze batzordera eramango dira, gerora udalbatzarrean lantzeko.

## Bost urte eskusoinuaren hauspoari emanez

SuBerri Akordeoi Taldeak Lasarte-Oriako hainbat elkarterekin batera emanaldia eskainiko du

**Txintxarri**

SuBerri Akordeoi Taldea Lasarte-Orian 2012an sortu zen. 2013ko otsailean bere lehenengo kontzertua eskaini zuen Lasarte-Oriako San Pedro Parrokian. Geroztik, ehundaka emanaldi eskaini ditu herrian zein estatu osoa zehar.

Bihar, larunbatean, 19:30etik aurrera, Manuel Lekuona Kultur etxean aukera izango da akordeoi taldearen musikaz gozatzeko. Izan ere, SuBerrik bosgarren urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia prestatu du.

SuBerri ez da bakarrik egongo urtemuga emanaldi honetan. Oholtzan Erketz EDT, Alboka Abesbatza, Zambra dantza taldea, Amaia Gonzalez Caballero, Semblante Andaluz, Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldea eta Ramon Irizar saxofonista izango ditu lagun.

**Gonbidapena**

Kontzertua ikusi ahal izateko gonbidapena behar da. Txartelak Manuel Lekuona kultur etxeko leihatilan eskuragarri izango dira 16:00ak arte.



TXINTXARRI

## Bosgarren mendeurrena ospatzen

Duela bost mende gertatu zen erreforma protestantea. Urteurren berezi hori ardatz, ospakizun asteburua izan da Eliza ebanjelikoarentzat. Okendo plazan egin dituzte ekintzak, haien lana eta oinarrizko ideiak erakusteko. Hamaika ekintza burutu dituzte: hitzaldiak, haurrentzako ekintzak, kultura programa, gorespen ospakizuna eta kontzertuak.

## Hipodromo etorbideko eraikinak, baimenik gabe eraikitzen

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Oria ertzean eraikitako etxebizitzei baimena orain eman izana salatu du Eguzkik.

Hipodromo etorbideko eraikinak ibaiaren zaintza eremuan daude. Ondorioz, Ura agentziaren baimena beharrezkoa da eraikinak egiteko, baina horiek baimenik gabe egin dituztela salatu du talde ekologistak.

Legez kanpo eraikitzen ari zirela ohartu, eta lanak geldiarazi zituen agentziak. Orain, baimena ematearekin batera, zenbait baldintza ezarri dizkio Urak. Horien artean, beheko solairuko lokaletan etxebizitzarik, ikas zentrorik, zahar-etxerik edo antzeko ekipamendurik ez egitea. Bestalde, agentziak jakinarazi du uholdeen baten ondorioz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna bere gain hartuko ez duela. Eguzkik jakitera eman du enpresa sustatzaileak erantzukizuna bere egin duela, eta kaltetuei arriskuaren berri emateko konpromisoa hartu. Eraikinak baimenik gabe egin izana "harrigarria" da Eguzkirentzat, baina are larriagotzat jo du urtebete eta gero legeztatzea, inolako diziplina neurririk edo isunik ezarri gabe.

# Asier Sagasti judoka, Iruñean azpitxalpendun

Espainiako Kopan lehen puntuak lortu ditu lasarteoriatarrak. Fermin Balda, Esteban Martinez eta Josu Olmos LOKEko judokak ere izan dira Iruñeako txapelketan. Gorka Aristegi entranaitzela pozik itzuli da, txapelketako maila "oso altua" izan delako

**Txintxarri**

Maila altuko txapelketa izan da Iruñeako Espainiako Kopa, baina nota ona aterata itzuli dira etxera Lasarte-Oriako judokak. Denboraldiko lehen lehiaketa egin dute seniorrek, eta Gorka Aristegi entrenatzailea pozik da. Asier Sagastik zilarrezko domina kolkoratu du 100 kg azpiko kategorian. Fermin Balda, Esteban Martinez eta Josu Olmos ongi lehiatu ziren, baina podiumeko postuetatik kanpo geratu ziren.

"Judoka oso onak parte hartu dute. Madrilgo jende asko zegoen, Kataluniakoak, Nafarroakoak...", esan du Aristegi entrenatzaileak. Bi borroka irabazita, finalean sartu zen Sagasti, baina ezin izan zuen Francisco Jose Molina madrildarra garaitu.

Olmosek normalean 60 kg azpiko kategorian lehiatzen du, baina 66 kg-koan parte hartu zuen Iruñean. "Eta asko nabaritu du pisu aldaketa", esan du Aristegik. Lehen borroka galdu, eta ez zuen aukerarik izan jarraitzeko. Baldak lehen norgehiagoka irabazi zuen 90kg azpiko kategorian, baina final lauredenetatik kanporatu zuten. Martinez 81 kg azpikoan lehiatu zen, baina lehenengo borroka galdu ondoren, ez zuen aurrera egiterik lortu berraukeran.

Edonola ere, denboraldia hasi besterik ez da egin. Azaroaren 11n juniorren superkopa jokatuko dute Amurrion.



Iruñean lehiatu den Lasarte-Oriako laukotea. TXINTXARRI

## Hiru lasateoriatar, Hego Euskal Herriko saskibaloi txapelketan

Judith Navarro, Aitor Anabitarte eta Eñaut Buiza Easoko jokalariek Gipuzkoako selekzioarekin jokatuko dute

**Txintxarri**

Hego Euskal Herriko lau selekzioak aurrez aurre lehiatuko dira asteburu honetan, infantil eta kadete kategoriatan. Lasarte-Oriako hiru saskibaloi jokalari izango dira txapelketan, hirurak Donostiako Easo jokalariak.

Kadeteetan Judith Navarrok jokatuko du, Anoetako kiroldegian. Larunbatean Bizkaiaren aurka izango du finalaurrekoa, 10:00etan. Kadete mutilek ere Anoetan jokatuko dute txapelketa. Aitor Anabitarte herritarrak jokatuko du Gipuzkoako selekzioarekin, Arabaren aurka. Azkenik, Eñaut Buiza arituko da infantil kategorian, Oliten (Nafarroa). Arabaren aurka jokatuko dute finalaurrekoa, larunbatean, 18:00etan. Finalak igandean jokatuko dituzte.

## Herriko errugbi taldeek ezin izan zuten garaipenik erdietsi

Uribealdea izan du aurkari Ohorezko B mailako taldeak, eta Txingudi, berriz, bigarren taldeak. Biek etxetik kanpo jokatu dute

**Txintxarri**

Ohorezko B mailako taldeak Uribealdea izan zuen aurkari joan den jardunaldian. Horien zelai jokoan aritu ziren, eta 23-20 galduta bueltatu ziren etxera. Sailkapen orokorrean hirugarren postuan dira orain zarauztarrak.

Datorren larunbatean, arratsaldeko 16:00etan, UBU Colina Burgos taldea izango dute aurkari, etxean. Hauek lehen postuan dira, eta, ondorioz, maila handia erakutsi beharko dute etxekoek. Bigarren taldea ere etxetik kanpo aritu zen asteburuan. Plaiaundin jokatu zuten partida, Txingudiren aurka, eta garaipena eskuratzerik izan ez bazuten ere, azken unera arte ez zuten amore eman.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### HERRI LASTERKETAK

**LASARTE-ORIA BAI! KROSA**

**Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaren 22. aldia jokatuko da. Hamar kilometroko ibilbidea osatu beharko dute lasterkariek. I. Roller Herrikoia ere jokatuko dute.**
Larunbata. 10:30. Lasarte-Orian.

### FUTBOLA

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

**Donostia Deusto FT- Ostadar SKT**
Larunbata. 18.30. Zubietan.

**JUBENILEN OHOREZKO MAILA**

**Ostadar SKT - Eibar SAD**
Larunbata. 15:30. Michelinen.

**KADETEEN OHOREZKO MAILA**

**Oiartzun KE - Ostadar SKT**
Larunbata. 17:00. Oiartzunen.

**KADETEEN LEHENENGO MAILA**

**Aizkorri Goierri FT - Ostadar SKT**
Larunbatean. 10:30. Seguran.

**LURRALDE MAILA**

**Ostadar SKT - Lagun Onak CD**
Larunbata. 17:15. Michelinen.

### ARETO FUTBOLA

**ESTATUKO HIRUGARREN MAILA**

**Eguzki Areto Futbola - Sasikoa Durango**
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraud kiroldegian.

**GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA**

**Ventanas Isu Leihoak Eguzki- Oiartzun**
Igandean. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.

**GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA**

**Cecilia Frutadenda Eguzki - Gaintxu AFT**
Ostirala. 20:30. Maialen Chourraud kiroldegian.

**SENIOR NESKAK**

**Trumoi Taberna Eguzki - Samaniego Orixe Tolosaldea**
Larunbatean. 18:00. Kiroldegian.

### SASKIBALOIA

**SENIOR LEHENENGO MAILA**

**Atletico San Sebastian - Ostadar SKT**
Larunbata. 20:00. Aieten, Donostian.

**SENIOR HIRUGARREN MAILA**

**Ostadar SKT - Zarautz Zast ZKE**
Ostirala. 20:30. Maialen Chourraud kiroldegian.

**ERRENDIMENDU JUNIORRAK**

**Ostadar SKT - Easo Zelai**
Larunbata. 11:00. Kiroldegian.

**KADETEEN HEGO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA**

**Gipuzkoa- Bizkaia. Judith Navarro lasarteoritarrak jokatuko du. Finalak eta hirugarren posturako partidak, igandean.**
Larunbata. 10:00. Anoetan.

**KADETEEN HEGO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA**

**Gipuzkoa- Araba. Aitor Anabitarte lasarteoritarrak jokatuko du. Finalak eta hirugarren posturako partidak, igandean.**
Larunbata. 12:00. Anoetan.

**INFANTILEN HEGO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA**

**Gipuzkoa- Araba. Eñaut Buiza lasarteoritarrak jokatuko du. Finalak eta hirugarren posturako partidak, igandean.**
Larunbata. 18:00. Oliten.

### ERRUGBIA

**OHOREZKO B MAILA**

**Babyauto Zarautz KE - Ubu Colina-Clinci**
Larunbata. 16:00. Zarautzen, Asti zelaian.

**EUSKAL LIGA 2. MAILA**

**Babyauto Zarautz KE - Bera Bera**
Larunbata. 18:00. Zarautzen, Asti zelaian.

### PILOTA

**ESKUZ BINAKA 1. MAILA**

**Oiarpe - Intza KE**
Ostirala. 19:15. Oiartzunen.

**ESKUZ BINAKA 1. MAILA**

**Beloki- Intza KE**
Ostirala. 18:00. Zumarragan.

### IGERIKETA

**NEGUKO LIGA**

**Infatilek, juniorrek eta absolutuek Neguko ligako lehen jardunaldia jokatuko dute.**
Larunbata. 18:00. Bidebietan, Donostian.

**ALEBINAK**

**Denboraldiko lehen jardunaldia jokatuko dute alebinek.**
Larunbata. 16:00. Ordizian.

**Ipar Martxa Ficoba-Endarlatsa**

**Ficoba-Endarlatsa martxa.**
Larunbata. 08:20. Euskotreneko geltokian.

# KROSEKO GEHIGARRIA

Lasarte-Oria Bai!




## Urteroko hitzordurako prest!!!

TXINTXARRI

Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat

aterpea

ELECTRICIDAD ARREGUI

Argiztatu zure etxea LED sabai-lanpara ederrenekin!



**Lanpara berritzaileenak:**

- Bozgorailudun lanpara: mugikor edo tabletetik musika jartzeko aukera bluetooth bidez
- 2 argi mota lanpara berean: erabili argi "hotza" edo "beroa" momentuaren arabera
- Intentsitatea erregulatzeko aukera duten lanparak

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

# "Emozioz beteriko saioa izango da; historikoa"

**IÑIGO GONZALEZ ETA TXEMA VALLES** 1 DORTSALA ERAMANGO DUTEN KAZETARIAK

Ostadar SKTk urtero herriko eragile bat omentzen du. Aurten Txintxarri-k eta Diario Vascok eramango dute 1 zenbakidun dortsala; Iñigo Gonzalezek eta Txema Vallesek

**Maddi Noriega**

Korrikalariekin batera, lasterketako irteeran hasi ohi dute euren *krosa*, kazetariek ere; beste erritmo batera, baina lasterketa ederra izan ohi da eurentzat ere urriko azken igandeko hitzordua.

Lasterkarien denborak, eta korrika saioak une izoztu bihurtu, eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian gertatutakoak herritarrei ahalik eta finen kontatzeko ahaleginetan, probaren bozgorailu izaten dira, eta lan horren aitortza gisa, aurtengo omendu gisa aukeratu ditu Ostadar SKT-k Txintxarri aldizkaria, eta Txema Valles *Diario Vasco*-ko kazetaria.

Omenduekin izan da Txintxarri ekitaldiaz solasean.

**Nola jaso duzue 1 zenbakidun dortsala ematearen notizia?**

**Iñigo Gonzalez:** Niretzako sorpresa handia izan da, baita harro egoteko motibo bat ere. Zalantzarik gabe, Lasarte-Orian urtean zehar egiten diren ekitaldi handienetariko bat da, lasarteoriatar bati zirrara gehien sortzen dion ekitaldietako bat. Gogoan dut Txemaren bitartez jakin nuela 1 zenbakidun dortsala eramateko eskaintza egingo zigutela. Sorpresaz hartu nuen berria, emozioz.

**Txema Valles:** Sorpresa handia izan da. Krosaren berri ematea gure lana da. Herrian gertatzen denaz informatzeko gaude, eta nola ez, krosaren berri ematea ere badagokigu.

**Zerbaitetan eragingo al du lehen zenbakiarekin joateak? Diferentea izango litzateke beste edozein zenbakirekin korrituko bazenute?**

**I.G.:** Omenaldi eta eskertza gisa 1 zenbakidun dortsala emateak lasterketan korrika egitera bultzatu nau. Azken batean, urte osoan herriarentzat hainbeste lan egiten duten komunikabideen errepresentazio gisa aterako gara, biok elkarrekin.

**T.V.:** Aurtengoan, 1 zenbakidun dortsala eman izanak berriz ere krosa korri egitera bultzatu nau, zazpi urte eta gero. Belauna apurtua daukat, eta ezin dut korrikarik egin, baina salbuespen bat egingo dut, entrenatu, lasterketa korritu eta atletismotik erretiratzeko.

**Nola doaz prestaketak?**

**I.G.:** Nik entrenamendu espezifikoak kroserako ez ditut egin. Futbolean aritzen naiz, eta saio horiek aprobetxatzen ditut. Astean hiru egunetan entrenatzen dugu ordu eta erdiz, eta asteburuetan izaten ditugu norgehiagokak. Pasa den urtean ere horrela joan nintzen lasterketa korritzera, eta sentsazio onak izan nituen.

Egia da orain arte lesio bat izan dudala, eta, ez dut aurreko urteetan bezala aurre denboraldirik egin, eta zertxobait justuago ibili naiteke agian aurten, baina lasterketa osoa egiteko espero dut nahikoa izatea.

**T.V.:** Nire burua ondo ikusten dut. 1 zenbakidun dortsala eramango nuela jakinarazi zidatenetik hasi naiz entrenatzen. Pare bat korrika saio luze egin ditut, eta eguna iritsi aurretik, beste pare bat egitea aurreikusten dut.

Dena den, belauna hautsi nuenetik pare bat urte daramatzat spining egiten, eta horri esker sasoian mantentzea ondo lortzen dut.

**Lehia egongo da elkarren artean?**

**I.G.:** Kronometroak alde batera utzita, gozatzea izango da helburua. Gu bion artean ez dut uste lehiarik egongo denik, baina lasterketan zehar, lagunen artean, lehia sanoak egongo dira, bai.

**T.V.:** Lehiarik ez. Iñigo izango da nire erritmoa kontrolatu, eta nik lasterketa behar bezala amaitu ahal izateko esku bat botako didana. hamar kilometroko lasterketa honetan, erraz atera diezazkidake 5-10 bat minutu Iñigok, baina frenoarekin joango dela pentsatzen dut, elkarrekin joateko.

Emozioz beteriko lasterketa bat izango da; historikoa. Hau behin gertatuko da, ez da bueltatuko.

**Elkarrekin egingo duzue lasterketa orduan...**

**T.V.:** Bai. Politena lasterketa elkarrekin egitea izango da. Kasu honetan ez goaz elkarren artean lehiatzera. Gauza sinboliko bat da aurtengo gure parte hartzea, eta beraz, logikoena elkarrekin korritzea da.

**Denborak izango al du garrantzirik zuentzat?**

**I.G.:** Hasiera batean behintzat ez. 1 zenbakidun dortsala eramateko aukeraz gozatzea izango da garrantzitsuena.

**Zenbatgarren aldia da Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiean parte hartzen duzuela?**

**I.G.:** Bigarren aldia izango da aurtengoa niretzat. Iragan urtekoa korritu nuen lehen aldiz, Txintxarri-rentzako. Krosa baino pare bat aste lehenago lasterketa barruko ikuspegi bat eskaini genezakeela bururatu zitzaigun. Herriko lasterketa hau behingoz korritzeko izugarrizko gogoak nituen, eta horrela egin nuen. Iragan urtean egin nuen debuta, eta izugarria izan zen. Entzunda nuen ikusten ari den jendearen animoek bultzada handia emetan zutela, baina bizitzen den arte ezin da hala dela ziurtatu, eta nik, hala bizi izan nuen lehengo urtean.

Eta bigarren parte hartzea, ba begira nolakoa! Aurtengo omenduak izanda korrika egitea berezia izango da oso. Hemendik aurrerako parte hartzeak ezingo dira hobetu!

**T.V.:** 2008. urtera arte egin diren lasterketa guztiak korritu ditut. Urteren batean zuntz-hauste baten ondorioz uste dut ezin izan nuela korrikarik egin, baina ez naiz ondo gogoratzen. 2009an belauna hautsi nuen, eta ordutik hona ezin dut korrikarik egin.

**Nolako esperientziak izan dira?**

**I.G.:** Iragan urtekoa oso esperientzia polita izan zen niretzat, eta aurtengoa ere bereziki ona izatea espero dut.

GURE ETXEA
Taberna
Goizeko 7:00etan irekitzen dugu!
..............
GOSARIAK, PINTXOAK...
Lasarte-Oria Bai!
Gu ere krosarekin bat!
Kale Nagusia 14
LASARTE-ORIA
943 37 42 44


ALBA
ARROPA DENDA
Bezeroaren hamabostaldirako txartelak eskuratu!
Lasarte-Oria Bai!
Animoak guztiei!
Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450
KOOKAÏ DEVOTA & LOMBA ese O ese NAFNAF YERSE aterpea

**T.V.:** Oso onak! Niretzako Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia eta Behobia-Donostia lasterketa kirol osasuna, eta osasun mentala mantentzeko pizgarri izan dira beti. Kirola egiteko motibazioa izan behar da, eta niretzako, urteroko motibazioa Behobia-Donostia lasterketa prestatzea izaten zen, eta prestaketa horrek Lasarte-Oriako krosa barne hartzen zuen.

Atletismoko festa handia da Lasarte-Oriako krosa.

**Berezia da lasarteoriatar batentzat krosa korritzea?**

**I.G.:** Lasarteoriatar guztientzat oso berezia da, bai. Azken finean, denborak lortzera etortzen diren korrikalariak aritzen dira, baina baita herriko jendea ere. Korrikalari profil ezberdinak biltzen dituen kirol proba da krosa. Minimo batzuen barruan, baina mota guztietako jendeari ematen dio lasterketa batean parte hartzeko aukera.

**T.V.:** Zure txokoan korrika egitea baino gauza hoberik ez dago, beti ere ondo bazaude, noski.

Norgehiagokak kirolaren zati politenak izan ohi dira; egindako esfortzua saritzen duten ekintzak izaten dira.

**Krosaren berri ematea nolako lana da kazetaritzaren aldetik?**

**I.G.:** Herrian hain adierazgarri izan ohi diren beste zenbait ekintzekin batera (Euskararen maratoia, festak...), Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia kubritzea oso esperientzia ona izan da niretzat, beti.

Beti duzu ardura puntu hori ere. TXINTXARRI-n beti aritu gara kazetari bat baino gehiago, eta koordinazio lanari esker ondo moldatu izan gara beti.

Alde batetik bestera korrika ibili behar da, lasterketako ahalik eta puntu gehienetara heltzeko, eta izerdi gehiago bota izan dut kazetari lanetan aritu naizenetan, lasterkari gisa atera naizenetan baino.

Honekin batera, jendearekin ematen den tratua ere polita izaten da. Senitartekoen argazkiak erakusteko eskatzen dizute, eskerrak ematen dizkizute, eta hori ere polita izaten da oso. Beste zenbait kasutan, ilunpean gera liteken lana azaleratzen da egun horretan. Kazetari batentzat oso atsegingarria da jendea pozik, eskertua ikustea.

**T.V.:** Saltsa barruan sentitu izan naiz beti. Lanean edo korrika, beti sentitu izan naiz lasterketaren parte. Hor ibili izan naiz beti, erdian.



Txema Valles eta Iñigo Gonzalez 1 zenbakidun dortsala eskuan hartuta, lasterketa egunean izango den helmugan. TXINTZARRI

**Beste lasterketaren batean parte hartu duzue inoiz?**

**I.G.:** Txikitan parte hartu nuen zenbaitetan, baina gerora, futbolean zentratu naiz eta horrekin aritu naiz gehienbat.

**T.V.:** Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaz gain, 22 Behobia-Donostia eta hiru Donostiako maratoi korritu ditut. Horrekin batera, beste zenbait kros herrikoietan ere parte hartu izan dut, Herrerakoan, besteak beste.

**Aurtengo berrikuntzen artean, ibilbidean izango dira zenbait aldaketa.**

**I.G.:** Ibilbide aldaketek beti eragiten dute inpaktuaren bat lasterketa hauetan. Kros honetan gainera, orain arteko ibilbidea urte luzeetan zehar mantendu da, eta jende ugari egongo da erreferentziak hartuta edukiko zituena.

Hala ere, ibilbide aldaketa honek kros herrikoiaren garapenaren isla ere badela esango nuke. Izan ere, kirol diziplina gehiago hartzen ditu Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak, eta horren erakusleiho ere bada ibilbide aldaketa.

**T.V.:** Azkarragoa izango da aurtengo krosa, baina horrek ez du esan nahi errazagoa izango denik. Denborak lortzera doan jendearentzat lasterketa azkarrak okerragoak izan ohi dira, izan ere, jendeak estutu egiten du. Horrek erritmo bizkorrean korri egitea dakar, eta esfortzu handiagoak egin behar izaten dira.

**Beste urteetan izan ez den zailtasunen bat izan liteke aurten?**

**I.G.:** Ez dakit zein puntutaraino identifika ditzakedan egon daitezkeen zailtasunak, baina nire kasuan, lehengo urteko esperientzia kontuan hartuta, sentsazioak ezberdinak izango dira ibilbide aldaketarekin. Hau parte hartzaile askori gertatuko zaiola uste dut.

**T.V.:** Ez... azkarragoa izango da. Jaitsiera eremu dezente izango dira, eta niretzako igoera zatiak baino okerragoak dira jaitsierak. Belaunentzako eta hankentzako okerragoak izan ohi dira, izan ere, jaitsierak lesio gehien sortzen dituzten eremuak izaten dira. Gorputza gehien zigortzen dute jaitsierek.



# 22 urteko hartu-emana, zuri-beltzetik kolorera

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaren edizio guztietan izan da Txintxarri. Aitortza modura, 1 dortsalarekin egingo dute lasterka aldizkariko kazetariek igandean. Bi proiektuak batera hazi dira herrian; 22 urtez izan da aldizkaria krosaren bozgorailua

**Txintxarri**

Lehenengo kilometrotik, azkeneko metrora arte. Lasarte-Oria Bai! Krosaren 22 aldi guztietan presente egon da Txintxarri, eta herri lasterketaren ingurukoak kontatu ditu bere orrietan. Irabazleei eta protagonistei elkarrizketak, argazkiak parte hartzaileei, kronikak lasterketaren barru-barrutik, bideoak, herritarren sailkapenak, haurren lasterketaren xehetasunak, informazio baliagarria... Ibilbide hori saritu nahi izan du Ostadar SKTk aurten, 1 zenbakidun dortsala aldizkariko langileen elastikoetan itsatsita.

Txintxarri eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia elkarrekin hazi diren proiektuak dira. 22. urtea du aurten lasterketak; 25 egingo ditu herri aldizkariak hurrengo urtean.

## Elkarren beharrean

Urte horietan guztietan elkar elikatu dira bi egitasmoak, bata bestearen alboan. Krosaren bozgorailu izan da Txintxarri. Aldizkariarentzat, berriz, urteroko zita garrantzitsua da lasterketa; korrikalariek beraiek baino arreta handiagoz dute kazetariek krosaren eguna markatuta egutegian.

Krosarekin batera garatu da Txintxarri-ren proiektu komunikatiboa. Zuri-beltzetik kolorerako jauzia, eta hainbat euskarri aldaketaz jabetu daiteke lasterketaren albiste zaharrei erreparatuta. Halere, aldizkariaren funtsa ez du denborak aldatu: krosari buruz jakin nahi duenak Txintxarri bat hartu beharko du.



Duela 17 urte inguru Lasarte-Orian egin zen krossaren argazkia da honakoa. Urbarten, gaur egungo Zahar Egoitzaren inguruan ateratakoa.

Arts. Ostadar.

**Baietz ba, 10 kilometro korrika aixa!**

Lasarte-Oria Bai! Lehen Kros Herrikoia

**Garai hau etorrita, hainbat korrikalari ikusten ditugu Zubietan barna Santu-eneako bidea egiten, entrenatzen Behobia dela eta ez dela. Orain, ordea, Ostadar K. F. k antolatutako Lasarte-Oria Bai! Lehen Kros Herrikoia dugu. Edozeinentzat. Ez da zertan Martin Fiz, Diego Garzia edota Zatopek izan behar. Kirola egiteko gogoa, festa honetan parte hartzeko gogoa behar da. Baina botatako izerdi eta ahaleginek saria izango dute Joxean Alberdi, Roberto Rebe eta Imanol Bardajiren iritziz.**

*Idoia Garzes*

Aspaldidanik, herri krossetan korrika aritzen diren lasarte-oriarrek zebilkiten buruan herrian halako froga egitearen beharra eta ideia. 3 urte inguru. Izan ere, herri askotan antolatzen dira kross herrikoiak eta gureari, Lasarte-Oriari horixe falta zitzaion. Izan ere, Lasarte-Oria izango da, herri mailan, "halako probetan parte hartzen duten korrikalari kopuru handienetakoa eskaintzen duen herria" antolatzaileen ustez.

3 urte luze ideia horrekin. Hasiera batean Udal Kiroldegiarekin hitz egin zuten, halako proba bat egiteko gogoa ez baita nahikoa, "azpiegitura sendoa nahitaezkoa da". Kiroldegiaren erantzun konkretuaren faltan, Ostadar Kirol Fundaziora jo eta berak hartu du kros herrikoiaren ideia aurrera ateratzearen testigua.

Atzera begira, bada aurrekariren bat, duela 17-20 urte inguru egindako krosa adibide. Baina igandekoa bezalakorik batere ez, azpiegitura sendoa eta krosa ondo ateratzeko zaintzan jende mordoa lanean. Gainera ez da ekintza puntuala izango. Izan ere, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia urtero egiteko nahia hor dago, Ostadar Kirol Fundazioak urtean zehar antolatzen dituen kirol ekintzetako beste bat izatea, kirol zita garrantzitsua bilakatzeko gogoa.

**Kirol-festa**

Lasarte Oria Bai! Lehen Kros Herrikoiaren filosofia, helburua: Lasarte-Orian kirol herrikoia, kirola bera garatzea eta indartzea, igandekoa kirol-festa handia izatea. Ostadar Kirol

Zatoz udazkeneko moda berria ikustera!

Lehenengo krosaren prebia, 1996ko urriaren 24an argitaratua. TXINTXARRI



Hamar kilometro gogoz korrika!

Aitor Aykenbieta

Lehenengo krosaren kronika. TXINTXARRI



Lasarte-Oria bai! II. Kros Herrikoi arrakastatsua

1997ko krosaren argazkiak. TXINTXARRI



DENA PREST III. KROS HERRIKOIARI HASIERA EMATEKO

Urriaren 25ean, goizeko 10:30etan, III. Kros Herrikoia jarriko da martxan. Irteera Okendo plazatik izango da eta kirol froga horretarako 160 pertsona arituko dira lanean.

1998an, elbarriak lehen aldiz. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Ostadarren V. arrakasta

Segituan egongortu zen lasterketa. TXINTXARRI

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat
• BARRUKO BERRIKUNTZAK
• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN
693 059 392 / 943 566 640 • uraitz@uraitz.com • www.uraitz.com
BULEGOA: Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat
MAiTE
ESTETIKA ARETOA
Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena
Prezio berriak fotodepilazioan, zatoz galdetzera!
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



# Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia hamargarren ediziora iritsi da

Lasterketa nagusia 10:30ean hasiko da; lehendabizi elbarrituak aterako dira, eta bi minutura gainontzeko korrikalariak

Berrogeita zortzi ordu baino gutxiago geratzen dira Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiari hasiera emateko. Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen lasterketa klasiko bihurtu da korrikalari herrikoien artean, eta aurten ere partehartze handia espero dute. Igandean hamargarren edizioa ospatzen da, eta antolatzaileek sorpresak iragarri dituzte lasterketa amaieran.

Lasterketa nagusia 10:30ean hasiko da. Okendo plazako irteera puntutik aterako diren lehenak elbarrituen lasterketan ariko direnak dira. Lontxo Esnaola Orion bizi den lasarte-oriatarrak gutxienez sei bat izango direla iragarri du.

Bi minutu beranduago, gainontzeko korrikalariak aterako dira. Joan den edizioan errekor berria ezarri zuten lasterketan izena eman zuten 1.153 korrikalariek –2002an 1.152 izan ziren–, eta hamargarren urteurrena ospatzeko polita litzateke errekor hori gainditzea, baina ez da erraza izango.

Nagusien lasterketa goizeko 10:30ean hasiko da. Aurtengoa hamargarren edizioa da, eta antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte lasterketan parte hartzeko.

Antolatzaile taldearentzat aurtengoa berezi xamarra da "hamargarrenak konnotazio horiek dituelako. Zenbaki borobila da, eta halakoak ospakizunekin erlazionatzen ditugu. Azken urteotako partehartzaile kopurua ikusita –laugarren ediziotik hona mila korrikalariren muga gainditu dute– badirudi korrikalari herrikoien babesa lortu dugula, eta guretzako oparirik onena zifra horiek mantentzea izango da, eta Lasarte-Oriako korrikalarien portzentajea igotzen bada, askoz hobeto".

**Bidaia baten zozketa**

Aurkezpen ekitaldian sorpresaren bat edo beste iragarri zuten, eta gehiago zehazteko eskatu diegu. "Partehartzaileen artean Cangas de Oniseko (Asturias) nekazal turismo batera asteburuko egonaldia zozketatuko dugu, Sella ibaia jaisteko aukerarekin", aurreratu [...] kalariak bere dortsala erakutsi beharko du oholtza gainean. "Saria jasotzeko ezinbestekoa da Okendo plazan egotea, zozketa egin eta berehala igo beharko baitu. Saritutako zenbakiaren jabea agertzen ez bada, bigarren zozketa bat egingo dugu, eta horrela irabazlea agertu arte", diote.

Gainontzean Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak ez du bestelako nobedaderik. Ibilbidea ez da aldatu; korrikalariek herriko auzo gehienak zeharkatuko dituzte, eta Zubietatik barrena pasa beharko dute 10.800 metroak betetzeko.

Ibilbidea osatzeko helmugara iritsiko diren azkeneko korrikalariek hirurogeita hamabost bat minutu beharko dituzte. Antolatzaileek hirurogeita hamabost egun baino gehiago behar izan dituzte igandeko lasterketa prestatzeko, baina guztia prest dago.

Hala ere, korrikalari eta [...] lariei, antolatzaileen esanak errespetatzeko, eta kontuan hartzeko larunbatetik igandera ordua aldatuko dela, eta goizeko 3.00etan 2:00ak izango direla.

*"Hamargarren edizioak konnotazio bereziak ditu. Zenbaki borobila da, eta halakoak ospakizunekin erlazionatzen ditugu. Azken urteotako partehartzaile kopurua ikusita badirudi korrikalari herrikoien babesa lortu dugula, eta guretzako oparirik onena zifra horiek mantentzea izango da, eta herrikoen [...]*

**Kros Txikia**

Nagusien lasterketa bukatzen denean, Kros Txikia hasiko da. Nagusien lasterketa klasiko bihurtu bada, Kros Txikia –aurtengoan bosgarren urtea beteko du– festa handi bat da, batez ere gaztetxoentzat.

Lehenengoa, bigarrena, hirugarrena edo berrogeita laugarrena iristeak ez du axola. Handiek bezala Okendo plazako helmugara iristea, eta gurasoe edo aiton-amonen animuak entzutea da garrantzitsua.

Adinaren arabera bost multzotan banatu dituzte. Txikienak hasiko dira 12:00ak aldera, eta bata bestearen atzetik laurehun bat neska-mutilen partehartzea espero da. Batek baino [...]

Txikien Krosa ohiko festa bihurtu zen hasierako urteetatik. 2001ean egin zuten lehen aldiz. TXINTXARRI




Iazko azala. Emakumeak gero eta gehiago dira lasterketan. TXINTXARRI









Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat

**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

**BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK**

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri patea

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



Lasarte-Oria Bai! Krosarekin bat

BAR Rummy JATETXEA

**Zure jatetxea momentu guztietarako:**

**EGUNEKO MENUA: 9,50€**
2 plater, postrea eta freskagarria, ardoa edo ura

**ASTEBURUKO MENUA: 15€**
2 plater, postrea eta freskagarria, ardoa edo ura

**PINTXOAK • RAZIOAK**
**ENTSALADAK • PASTA**
**PLATER KONBINATUAK**
**HANBURGESAK • OGITARTEKOAK**
**POSTREAK**

Kale Nagusia 71, Lasarte-Oria • Tel.: 943 570 677 | Berezitasunak • Eguneko menua • Ospakizunak



BIKAIN

# Haur eta gaztetxoek ere haien trebezia erakutsiko dute

Korrika Festaren XVII. edizioa izango da aurtengoa. Infantil eta kadete mailako lasterketek emango diote hasiera. Ostean, txikienak izango dira protagonistak. Ehundaka haur eta gaztetxok haien onena emango dute helmugara ahal bezain bizkor iristeko

**Txintxarri**

Lasarte-Oria Bai! krosa amaitu ostean, herriko 5 eta 15 urte bitarteko haur eta gaztetxoen txanda iritsiko da. XVII. Korrika Festako parte hartzaileek ordu betez erdiguneko kaleetan barrena lasterka egingo dute.

Adinaren arabera, ordutegi eta ibilbide ezberdinak izango dituzte ondoan dagoen mapan ikus daitekeen modura.

Berrikuntza modura, lehen bi lasterketetan 2004-2005 eta 2006-2007 urteetan jaiotako gaztetxoak izango dira protagonistak. “Bi lasterketa horiek indartu nahian gabiltza, eta ikusle gehien biltzen den unean egitea erabaki dugu”, azaldu du Ostadar SKTk.

Helmugara iristean guztiek izango dute saria. Jalguneko kideek domina lepoan jarri eta indarrak berreskuratzeko edateko jogurta eta gailetak izango dituzte.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, haurrek lasterketa hasi baino 15 minutu lehenago egon behar dute dagokien harrera guneetan.




| TALDEA | URTEA | ORDUA | DISTANTZIA |
|---|---|---|---|
| A | 2004/05 | 12h15' | 1.200m |
| B | 2002/03 | 12h25' | 1.200m |
| C | 2012 | 12h35' | 100m |
| D | 2010/11 | 12h45' | 150m |
| E | 2008/09 | 12h55' | 400m |
| F | 2006/07 | 13h05' | 800m |

BIKAIN

**Izena ematea**

Korrika Festan izena eman ez duen haur edo gaztetxoak oraindik astia izango du igandera arte.

Gaur arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etatik 20:00etara irekia egongo da inskripzio gunea. Bihar eta etzi, berriz, Michelin kirol guneko pilotalekuan. Bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era; igandean, 9:00etatik 10:00etara.

Lasterketan parte hartzeagatik 5 euro ordaindu behar dira.

Antolatzaileek azken egunerako ez uztea gomendatzen dute.









# Lasterketa motzagoa, eta are azkarragoa

Iazko frogaren ondoren, lehen Roller Herrikoia antolatuko du Ostadarrek. Korrikalarien eta patinatzaileen arteko "elkarbizitza" errazteko moldatu dute ibilbidearen lehen zatia. Donostia Etorbideko aldapa kenduta, hamar kilometrora egokitu dute proba

**Adrian Garcia**

Korrikalari guztiak ohartu dira dagoeneko: krosaren aldaketa nabarmenena da ibilbide aldaketa. Ez dute Donostia Etorbideko aldapa igoko, eta Urbil aldera egingo dute gora, herrira Sasoetatik bueltatzeko. Motzagoa izango da lasterketa; hamar kilometrora egokitu dute. Eta lehen aldiz, patinatzaileentzako ireki dute izen ematea. Hain zuzen, horregatik egin dituzte aldaketak ibilbidean, korrikalarien eta patinatzaileen "elkarbizitza errazteko". Igandean, 10:30ean hasiko da lasterketa. Korrikalariak baina bi minutu lehenago aterako dira aulki gurpildunak, eta sei minutu lehenago patinatzaileak. Ostadarrek espero du 1.000 korrikalaritik gora egotea.

Anabel Eleno korrikalaria kroseko ohikoetako bat da, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Xehetasun osoz ezagutzen du ibilbidearen moldaketa, joan den igandean egin baitzuen. "Motzagoa da, eta, beraz, azkarragoa izango da lasterketa. Gainera, kendu digute Donostia Etorbideko aldapa; oso gogorra da". Kontran, Urbilgo aldapa igo beharko dute korrikalariek. "Gogorra da, nahiz eta desnibel gutxi izan. Lasterketa hasieran da, eta oso azkar joango da jendea".



Berasategiko aldapa saihestu ahalko dute patinatzaileek. TXINTXARRI

### Animoekin kontuz

Nahiz eta norberak korri egiteko bere modua duen, ondoko aholkuak eman ditu Elenok: "Nik hasieran zertxobait gordeko nuke. Gero ordekan eta aldapa beheran indartsu joan behar da, denbora errekuperatzeko".

Aurten herriguneko hainbat zati kendu dituzte. Horrela, Kale Nagusitik igaroko dira hirugarren kilometrotik aurrera, eta helmugara iritsi arte ez dira herrigunera bueltatuko. "Kale Nagusian pilatuko dira ikusle gehienak. Ez da ikusteko leku txarra. Giro polita egongo da".

Halere, kontuz ibili beharko da zati horretan, herrikideen animoak gehiegi ez berotzeko. "Arriskutsua da, zati horretan estutzen baduzu jendearen animoak bultzatuta, gero ordaindu dezakezu, Oria aldean, adibidez, animatzeko jende gutxi dagoenean". Gainera, aurrerago, Zubipe aldean beste aldapatxo bat dago. "Zaila da burua hotz edukitzea. Nahi gabe erraza da berotzea".

Donostiako maratoia begiz jota du Elenok, eta krosa "entrenamendu gogor bat" bezala planteatu du. Edonola ere, lasterketa berezia da berarentzat. "Ez dakit zenbatetan parte hartu dudan, kontua galdu dut dagoeneko".

### Patinak, lehian lehen aldiz

Baina korrikaz harago izango da lehia gehiago. Azken urteetan indarra hartzen ari dira patinen lasterketak, eta, Lasarte-Oria Bai! Krosarekin, egutegia zabaldu zaie patinatzaileei. Iaz 30 bat eskarmentudun patinatzaile gonbidatu zituzten, ikusteko korrikalariekin lasterka egitea bateragarria zen. Haien aholkuak jaso ostean, I. Roller Krosa antolatu dute Ostadarrekoek.

Patinatzaileen eta korrikalarien denbora tartea handitu egin dute. Orain, sei minutuko aldearekin aterako dira. Iaz bi minutu ziren. Lasterkariek patinatzaileren bat harrapatzen badute, zuzenean lehiatik kanpo geratuko litzateke.

"Denbora tarte horrek lasaitasun handiagoa emango die patinatzaileei", azaldu du Sergio Benitezek, Aprender a Patinar Gipuzkoa elkarteko kideak. Lasarte-Oriako elkarteak patinatzeko eskolak ematen ditu. Benitezek azaldu duenez, bi patinatzaile mota egon ohi dira. "Donostiakoak abiadura patinekin etorri ohi dira, eta bizkor-bizkor ibiltzen dira horiek. Lasarten, normalean, *free style* motakoak ibiltzen dira, eta horiekin ez da horrenbeste abiada hartzen". Hain zuzen, iaz horietako batzuk nahiko larri ibili ziren lehenengo korrikalarien aurretik helmugaratzeko.

Benitezen arabera, ibilbidea "egingarria" da. "Iazkoa baino hobea da. Hipodromoko zatia kenduta, beste guztia ondo asfaltatuta dago".

Jon Zugastik oroitzapen onak gordetzen ditu; krosa patinen gainean egin zuenetako bat izan zen. "Tarteren batean asfaltoa oso gaizki zegoen. Baina, bestela, oso proba polita izan zen, desberdina".

### Martin Berasategiko aldapa

Martin Berasategi jatetxeko aldapa kendu izana ulertzen du Zugastik, nahiz eta zaitirik gogokoena zuen berak. "Lasterketa mundu guztiari ireki badiote, pentsatzen dut ibilbidea ondo egongo dela. Iaz, esaterako, Berasategiko aldapan jendea larri zebilen.".

Ibilbidea teknikoa izan arren, "iazkoa baino errazagoa da", Zugastiren hitzetan. "Azkenean aldapak ez dira horren arriskutsuak. Aurten Sasoeta aldeko zati hori nahiko erraza da. Ikusi beharko da zenbat jendek parte hartzen duen".

Antolatzaileek arriskutsuenak izan daitezkeen lau bihurgunea markatu dituzte, eta Ostadar SKTren webgunean ikus daitezke haiei buruzko xehetasunak eta argazkiak.

Zalantzarik ez du Zugastik: euria da patinatzaileen arerio nagusia. "Aldapa gora bustita baldin badago, ezin duzu ongi zapaldu eta asko kostatzen du aurrera egitea".

**KORRIKALARIAK BAINO SEI MINUTU LEHENAGO ATERAKO DIRA PATINATZAILEAK**

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

I. Urruzola aroztegia

- Altzairuak neurrira
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Era guztietako arotz-lanak
- Etxe barruko konponketak

Lasarte-Oria Bai! Animoak korrikalari guztiei!

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:
www.iurruzola-aroztegia.com

urruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238
Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

Lasarte-Oria Bai!
Animoak Korrikalari guztiei!

Balerdi
Harategiak



Bertako haragia eta artisau urdaitegia

LASARTE-ORIA
Kale Nagusia 36-38 • Tel. 943 37 04 46
Geltoki kalea 19 • Tel. 943 37 65 85
Kale Nagusia 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI
Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA
Idiazabal kalea 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA
Bermingham behea 31 • Tel. 943 28 23 23

Lasarte-Oria Bai!
Animoak korrikalari guztiei!

Josue
Igeltseritza S.L.

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak
Barruko berrikuntzak
Estalkien berriztatzeak
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Lasarte-Oria Bai!
Animoak korrikalari guztiei!

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria

✓PRIMERAKO GOSARIAK:
kafea, zukua, tostadak, opilak...
✓TXOKOLATEA TXURROEKIN
✓RAZIOAK
✓PINTXO AUKERA ZABALA!
•Hotzak
•Beroak
✓SALDA



## ZORION AGURRAK



**Maialen**
Ondo pasa zure egunean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



**Nora**
Zorionak bihotza!! Disfrutatu zure 16 urte eder horiek!



**Elaia**
Mila txokolatezko muxu familiako guztiengandik!!.



**Haizea**
Zorionak politta!!! Muxu asko bidaltzen dizkizugu Pinutegitik. Ondo ondo pasa zure eguna!!

## JAIOTAKOAK

**Mikel Egizabal Begiristain.**
Urriaren 19an.
**Salman El Hamri El Ghzaoui.**
Urriaren 18an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | |
|---|---|
| Ostirala, 27 | GANDARIAS-URIBE |
| Larunbata, 28 | DE MIGUEL |
| Igandea, 29 | DE MIGUEL |
| Astelehena, 30 | ORUE |
| Asteartea, 31 | LASA |
| Asteazkena, 1 | DE MIGUEL |
| Osteguna, 2 | GIL |

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.** Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

SALMENTA

Garaje itxia saltzen da Torre Parkean. 14m2 ditu. Prezioa 12.500 euro. Telefonoa, 615 720 367.

**LANA**

ESKAERA

Emakume langilea, arduratsua, esperientziaduna eta ohitura egokiak dituena eskaintzen da pertsona adinduak zaintzeko. Interna edo orduka. Berehala lanean hasteko prest. 632 533 714.

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606 661 048 / 943 404 015

Asteburuetan externo bezala lan egiteko, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko neure burua proposatzen dut. Telefonoa: 637 16 07 34

Esperientzia duen emakume euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dendari bezala edo ostalaritzan lan egiteko prest. Telefonoa:677 356 413.

## OHARRAK

### Manttangorriren zerbitzu bereziak Domu Santu egunean

Domu Santu Eguna dela eta, beraien hildakoak gogoratu nahi dituzten herritarrek hilerrira joan ahal izateko zerbitzu bereziak izango dituzte, urriaren 31an eta azaroaren 1ean. Zerbitzuak hauek dira:

- *Urriaren 31an*:
Antxisutik irteerak,
16:00, 17:00 eta 18:00.
Hilerritik irteerak,
16:30, 17:30 eta 18:30.
- *Azaroaren 1ean*:
Antxisutik irteerak,
9:00, 10:00, 11:00, 12:00 eta 13:00.
Hilerritik irteerak,
9:30, 10:30, 11:30, 12:30 eta 13:30.

### Zabaleta Auzolan elkartearen batzar informatiboa

Astelehenean, urriaren 30ean, Zabaleta Auzolan elkarteak batzar informatiboa egingo du arratsaldeko 19:00etatik aurrera Antonio Blas Plazan.

## GUTUNAK

### 5. edukiontzia erabiltzen dutenei deskontua

**LASARTE-ORIAN AIRE GARBIA**

Lasarte-Oriako Udalak laster onartuko ditu 2018ko arau fiskalak. Hori dela eta, Lasarte-Orian Aire Garbiak honako hau proposatu nahi du:

UDALAK ZABOR-TASAN GUTXIENEZ % 20KO DESKONTUA EGIN DIEZAIELA 5. EDUKIONTZIKO TXARTELA DUTENEI.

ARRAZOIAK

Hondakinak etxean gaika biltzen ez diren neurrian, gero eta lehengai gehiago xahutzen dira, gero eta gehiago kutsatzen da, eta gero eta hondakinak tratatzeko sistema garestiagoak behar dira. Beraz, tarifa finkoa, gaur egun Lasarte-Orian indarrean dagoena, antiekologikoa ez ezik, sozialki injustua ere bada, arduraz jokatzen duten birziklatzaileak zigortzen dituelako, eta axolagabeak, berriz, saritu. Izan ere, birziklatzaileek, lan gehiago egiteaz gain, tarifa finkoaren bidez besteen axolagabekeria finantzatzen dute.

Hondakin Planak berak, PIGRUG delakoak, argi esaten du: "Hondakinak sortzea zigortuko duten tasa aldakor eta mailakatuak ezarriko dira".

Lasarte-Orian, hondakinak gaika biltzea ez da herritar guztion ardura, baizik eta Udalak alor honetan konpromiso gehien dutenei eskaintzen dien aukera. Horrela gauzak, Udalari proposatzen diogu birziklatzaileak tarifa finkoaren bidez zigortu ordez, beraien ardura deskontu baten bidez aitortzea.

Zergatik % 20? 2015ean auzokonpostatze programan parte hartu zuten familiei % 20ko deskontua egin zitzaielako. 2016an, baina, udal gobernuak deskontu hori bertan behera utzi zuen, bosgarren edukiontzia oraindik ezarrita ez zegoelako eta, ondorioz, gainerako herritarrekiko diskriminatzailea zela iritzita. Egun, berriz, bosgarren edukiontzia ezarrita dago. Beraz, % 20 hark erreferente ezinbestekoa dirudi.

Argudiatu daiteke, arrazoi osoz argudiatu ere, bosgarren edukiontziko txartela izateak ez duela bermatzen bosgarren edukiontzia erabiltzen denik, eta, are gutxiago, behar bezala erabiltzen denik. Egia da, baina udalak birziklatzen dutenak eta birziklatzen ez dutenak bereizteko beste sistemarik ez du ezarri. Honek ere argiro erakusten du Lasarte-Oriak alor honetan bide luzea duela egiteko, baina bide horretan eman beharreko aurreneko pausoetako bat tarifa finkoa bertan behera uztea da, ezbairik gabe.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.** Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria / txintxarri@txintxarri.eus


txintxarri www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

**Erredakzioa**
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**
Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Informatikoa**
Asier Aztiria.

**Administraria**
Nerea Garziarena.

**PUBLIZITATEA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
*publizitatea@ttakun.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
*txintxarri@txintxarri.eus*

**Inprimategia**
Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94
**ISSN:** 1134-0053
**Tirada:** 8.000 ale


TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.**

## OSTIRALA 27

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**
Julen Lezamiz ikertzaileak eta Historia doktoreak *Batailoi nazionalistak Gipuzkoan: eraketa, garapena eta errepublikarren parte hartzea ipar frontean* hitzaldia eskainiko du. *1936/07/18ko Estatu Kolpea Gipuzkoan eta Nafarroan* hitzaldi sortaren barruan.
*Antonio Mercero aretoa, 19:00etan.*

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**
Palomo Linares elkartearen 50. urteurreneko ospakizunekin jarraikiz, Pedro Maria Azofra Peña kazetari eta zezenketa kritikoak hitzaldia eskainiko du.
*Paloo Linares elkartea, 20:00etan.*

**LASARTE-ORIA Erakusketa**
Lasarte-Oriako Zurmailu zurlanketa elkarteko kideen lanak ikusgai.
*Mercero aretoa, 18:00etatik 20:30era.*

**USURBIL Antzerkia**
*Sexijentziak Askatuz* antzerkia eta solasaldia. Aurrez gonbidapenak eskuratu behar dira Oiardo Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Artzabalen, Txirristran, eta Aitzagan.
*Sutegiko auditorioa 18:30ean*

## LARUNBATA 28

**LASARTE-ORIA Inaugurazioa**
Juan Jose Mendiluzeren omenezko eskultura berriaren inaugurazioa egingo da. Gotzon Huegun herritarrak egin du *Argizaiola* berria.
*Atsobakar parkea, 12:00etan.*

**LASARTE-ORIA Urteurrena**
Suberri akordeoi taldeak bosgarren urteurrena bete du, eta hori ospatzeko, emanaldia berezia eskainiko dute. Horrela, herriko zenbait talde gonbidatu dituzte emanaldi berezi horretan parte hartzera: Alboka abesbatza, Erketz EDT, Semblante Andaluz, eta beste hainbat. Gonbidapena behar da. Manuel Lekuonako leihatilan eskuragarri 16:00ak arte.
*Manuel Lekuona, 19:30ean.*

**LASARTE-ORIA Erakusketa**
Lasarte-Oriako Zurmailu zurlanketa elkarteko kideen lanak ikusgai.
*Mercero aretoa, 12:00etatik 14:00etara.*

**ASTIGARRAGA Kontzertua**
Demode Quartet ahots taldearen emanaldia izango da. *Musikal guztiak la, la* hirugarren diskako abestiak eta aurreko lanetako doinu ezagunak eskainiko dituzte. Sarrera, 6 euro.
*Kultur etxean, 20:00etan.*

## IGANDEA 29

**LASARTE-ORIA Erakusketa**
Lasarte-Oriako Zurmailu zurlanketa elkarteko kideen lanak ikusteko azken eguna.
*Mercero aretoa, 12:00etatik 14:00etara.*

## ZINEMA

**LASARTE-ORIA**

MANUEL LEKUONA

**Go!azen 4 aurreikustaldia**
Ostirala: 19:00.

**Cars 3**
Igandea: 17:00.

**Churchill**
Igandea: 19:30.

**Handia (JBGA)**
Ostirala 3: 22:00.

**USURBIL**

URBIL

**Annabelle: Creation**
Ostirala: 18:35, 20:30, 22:40, 00:55.
Larunbata: 20:30, 22:40, 00:55.
Igandea: 20:30, 22:40.

**El muñeco de nieve**
Ostirala: 18:00, 22:45, 00:15.
Larunbata: 22:45, 00:15.
Igandea: 22:45.

**El pequeño vampiro**
Ostirala: 16:05.
Larunbata: 16:05,18:30.
Igandea: 16:05,18:30.

**El secreto de Marrowbone**
Ostirala: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.
Larunbata: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 00:55.
Igandea: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40.

**Geostorm**
Ostirala: 15:50, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.
Larunbata: 15:50, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.
Igandea: 15:50, 18:05, 20:15, 22:30.

**Handia**
Ostirala: 15:50 (eusk.), 18:15, 20:20 (eusk.), 22:40, 00:55.
Larunbata: 15:50 (eusk.), 20:20 (eusk.), 22:40, 00:55.
Igandea: 15:50 (eusk.), 20:20 (eusk.), 22:40.

**La llamada**
Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

**Operación Cacahuete 2. Misión: Salvar el parque**
Larunbata: 18:15.
Igandea: 18:10.

**Tadeo Jones 2: El secreto del Rey Midas**
Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00, 18:15.
Igandea: 16:00, 18:15.

**Thor: Ragnarok**
Ostirala: 16:20, 18:00, 19:10, 20:40, 22:00, 23:20, 00:50.
Larunbata: 16:20, 18:00, 19:10, 20:40, 22:00, 23:20, 00:50
Igandea: 16:20, 18:00, 19:10, 20:40, 22:00.

**Toc Toc**
Ostirala: 16:00, 18:10, 20:35.
Larunbata: 16:00, 20:35.
Igandea: 16:00, 20:35.

**Blade Runner 2049**
Ostirala: 21:00.

## ASTELEHENA 30

**LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria**
Pello Añorgak 4 eta 5 urteko haurrak ipuin eta liburuen munduan murgilduko ditu. Haur gazte literatura suspertzeko programaren barruko ekintza da.
*Manuel Lekuona haur liburutegia, 18:00etan.*

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**
Ama Brigitarren komentuko kapilau Felix Garitanok *Jainko bila* hitzaldia eskainiko du. Andatzazpi Pastoral Barrutiak antolatutako ekintza da.
*Manuel Lekuona, 19:00etan.*



KOMIKIA


HAUXE BAI JENEROA!
GAUR, LINGUISTIKAKO KLASEAN,
TEORIZATZAILE HANDIEN ZERRENDA EMAN DIGUTE
HIZKUNTZAREN PENTSALARI HANDIAK
PLATON
Nondik datoz gauzen izenak?
ARISTOTELES
Hizlariaren boterea
HUMBOLDT
Hizkuntz aniztasunaren teorizatzailea
SAUSSURE
Linguistika modernoaren aita
CHOMSKY
Ordenagailuek bezala hitz egitea
JACKOBSON
Estrukturalismoaren aita
WITTGENSTEIN
ETA ZER IRUDITU?
EMAKUME BAT BERA ERE EZ DAGOELA KONTUAN HARTUTA...
...ULERTEZINA
@garbineubeda



R.P.S. 175/15 I.L.G.
Erreflexuen aurkako
2 mō betaurreko graduatu
97€
www.multiopticasgipuzkoa.com
ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA
Eskaintza baliagarria 2017/12/31 arte. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.
Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira
Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE
multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan


aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
943 36 63 77
www.dentalaldaz.com
RPS 233/13
20 URTETAKO
ODONTOLOGIA ZEBITZUAREKIN
GUSTURA DAUDEN 38.000 PAZIENTE
Lasarte-Oria Bai!
Krosarekin bat
Lasarte-Oria
Ola kalea, 10
Tolosa
San Frantzisko, 39
Elgoibar
San Bartolomé, 22